| | |
|---|---|
| Hiztegi azterketa — *Morto Vivace*. Jon Arretxe. Elkar. | Zuzen: |
| Izen-deiturak: ........................ Maila-taldea: ............ | Nota: |

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
Azterketa honen balioa: ............ puntu.

| | |
|---|---|
| **txopa** | «*Le vieux mouche* mugiarazten zuen **txopako** arrabol-helizeak abiadura txikitua zuen Elbarrien Zubiaren azpitik pasatu ondoren...» |
| **arrabol-helizea** | «*Le vieux mouche* mugiarazten zuen txopako **arrabol**-helizeak abiadura txikitua zuen Elbarrien Zubiaren azpitik pasatu ondoren...» |
| **durundi** | «Txaloen **durundia** apaldu zenean, kontzertu inprobisatu hartan tenor *spinto* baten ahotz boteretsua sortu zen pasaiarien multzo handiaren erdialdetik.» |
| **aria** | «...harridura eragin zuen entzuleengan *Turandot*-eko "Nessum Dorma" **ariaren** lehenengo esaldiekin.» |
| **zizpuru** | «**Zizpuru** bat edo beste aditu zen, eta hara bildutako lagunek areago gozatu zuten kantariaren interpretazio sentiberarekin.» |
| **karel** | «Berehala hurbildu zen jendea **kareleraino**, bere senetik aterata zegoen andreak zer ikusi ote zuen jakin nahian...» |
| **sentibera** | «Zizpuru bat edo beste aditu zen, eta hara bildutako lagunek areago gozatu zuten kantariaren interpretazio **sentiberarekin**.» |
| **senetik aterata** | «Berehala hurbildu zen jendea kareleraino, bere **senetik aterata** zegoen andreak zer ikusi ote zuen jakin nahian...» |
| **ingurumaria** | «Jendetsu zebilen Pigalle plazaren **ingurumaria**, uztailaren 14ko gauaren epeltasuna lagun.» |
| **kilikagarri** | «...prostituten helburua, ostera, bezero potentzialak erakartzea zen, eta ikuskizun **kilikagarri** eta paregabeak aginduz limurtzen zituzten.» |
| **limurtu** | «...prostituten helburua, ostera, bezero potentzialak erakartzea zen, eta ikuskizun kilikagarri eta paregabeak aginduz **limurtzen** zituzten.» |
| **ostera** | «...prostituten helburua, **ostera**, bezero potentzialak erakartzea zen, eta ikuskizun kilikagarri eta paregabeak aginduz limurtzen zituzten.» |
| **berriketan** | «Haiek nahikoa zuten jan-edanak astiro dastatu edo zigarro bat patxadaz erretzearekin, **berriketan** edo, besterik ezean, oinezko-pasari begira.» |
| **zapal** | «...biak ziren gizon garaiak, baina beltza, sudur handi eta oso **zapalekoa**, bestea baino askoz sendoagoa zen burutik oinetaraino.» |
| **oinezko-pasa** | «Haiek nahikoa zuten jan-edanak astiro dastatu edo zigarro bat patxadaz erretzearekin, berriketan edo, besterik ezean, **oinezko-pasari** begira.» |
| **melatuta** | «—Ederra –esan zuen beltzak bere ahots grabeaz, maionesaz **melatutako** ezpainak zurrupatzen zituela.» |
| **mintzaide** | «Hitz-truke gordina gorabehera, ez zuen ematen **mintzaideak** haserretzeko bidean zeudenik.» |
| **gorabehera** | «Hitz-truke gordina **gorabehera**, ez zuen ematen mintzaideak haserretzeko bidean zeudenik.» |
| **ufako** | «...eta euren nagusiak, kopetilea altxarazi zion **ufako** ozena bota ondoren, hitza hartu zuen berriz ere...» |
| **gogait-keinu** | «—Ez dakigu –**gogait-keinua** egin zuen kapitainak–, baina lehenengo begiratuan dauden aztarnek hilketa izan daitekeela adierazten dute.» |

| Hiztegi azterketa — *Morto Vivace*. Jon Arretxe. Elkar. | |
|---|---|
| Izen-deiturak: ........................ Maila-taldea: ............ | Zuzen: |
| Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak. Azterketa honen balioa: ......... puntu. | Nota: |

| | |
|---|---|
| **dibagazio** | «Edonola ere –alferreko **dibagazioa** moztu nahi izan zuen nagusiak–, berehalako autopsia agindu dut, gorpua eraman egin dute Morgera...» |
| **etzidamu** | «—Koruko kideak, teorian, beste egun bitan geratzekoak ziren, **etzidamu** arte.» |
| **atxiki** | «Zeuek ikusi baten bat Parisen **atxikitzea** komeni den, ahaztu gabe horrek arazoak sor ditzakeela.» |
| **morge** | «Edonola ere –alferreko dibagazioa moztu nahi izan zuen nagusiak–, berehalako autopsia agindu dut, gorpua eraman egin dute **Morgera**...» |
| **halandaze** | «Tira, kasua zuena da eta badakizue zelan jokatu honelakoetan, **halandaze**...» |
| **pagotxa** | «—Zergatik tokatzen zaizkigu beti guri **pagotxarik** goxoenak?» |
| **ostera bat** | «...ordu batzuk behar izan zituzten (...) **ostera bat** egin, inork ezer arrarorik sumatu ez zuela egiaztatu eta barkukideen datuei bistadizoa emateko.» |
| **bistadizo** | «...ordu batzuk behar izan zituzten (...) ostera bat egin, inork ezer arrarorik sumatu ez zuela egiaztatu eta barkukideen datuei **bistadizoa** emateko.» |
| **morroi** | «Ziur **morroiak** kriston atxurra harrapatu, deskuiduan txopatik jausi eta helizeko arrabolak egin duela gainerakoa.» |
| **postura egin** | «—**Posturarik egin** nahi?» |
| **hazpegi** | «...aho-moxorroa eta txanoa eranztean buru soildua, aurpegi hezurtsua eta **hazpegi** luze eta zorrotzak.» |
| **atxur** | «Ziur morroiak kriston **atxurra** harrapatu, deskuiduan txopatik jausi eta helizeko arrabolak egin duela gainerakoa.» |
| **soildu** | «...aho-moxorroa eta txanoa eranztean buru **soildua**, aurpegi hezurtsua eta hazpegi luze eta zorrotzak.» |
| **ahuspez** | «...gorputz txiki baina lirain bat geratu zen agerian, **ahuspez**.» |
| **talaian ipini** | «...baina ez da heriotzaren arrazoia; ez arrazoi nagusia, behintzat –**talaian ipini** ziren inspektoreak.» |
| **bare** | «Dena dela, indar handiko norbaitek erabili du arma, ze errai hutsak, **barea**, diafragma eta birika bat zeharkatu dizkio mutilari.» |
| **zakar** | «—Zakilez zulatuta –bota zuen inspektore beltzak, **zakar**–. Mutil hau marikoi praktikantea zela esan nahi digu Manixek.» |
| **tximeleta-begizta** | «...zapata distiratsuak, praka ondo lisatuak, zetazko alkandora, **tximeleta-begizta**...» |
| **segail** | «Musikari **segailak** Martinezen kamiseta arruntari eta larruzko txamarra ajatuari erreparatu zien...» |
| **ajatu** | «Musikari segailak Martinezen kamiseta arruntari eta larruzko txamarra **ajatuari** erreparatu zien...» |

| Hiztegi azterketa — *Morto Vivace*. Jon Arretxe. Elkar. | Zuzen: |
|---|---|
| Izen-deiturak: ........................ Maila-taldea: ........................ | Nota: |
| Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak. Azterketa honen balioa: ........ puntu. | |

| | |
|---|---|
| **beste horrenbeste egin** | «Jarraian zutitu egin ziren eta musikari errumaniarrak **beste horrenbeste egin** zuen.» |
| **geratu orduko** | «Igogailuan bakarrik **geratu orduko** Martinezek buruan zerabilena bota zion Perroti...» |
| **buruan erabili** | «Igogailuan bakarrik geratu orduko Martinezek **buruan zerabilena** bota zion Perroti...» |
| **musu** | «...begiak erdi itxita zeuzkan, loguraz, baina atoan ireki zituen, izu aurpegiz, Martinezen **musu** orbaintsuarekin topo egitean.» |
| **orbaintsu** | «...begiak erdi itxita zeuzkan, loguraz, baina atoan ireki zituen, izu aurpegiz, Martinezen musu **orbaintsuarekin** topo egitean.» |
| **atoan** | «...begiak erdi itxita zeuzkan, loguraz, baina **atoan** ireki zituen, izu aurpegiz, Martinezen musu orbaintsuarekin topo egitean.» |
| **hogeita hamataka** | «**Hogeita hamataka** urte izango zituen.» |
| **lur jota** | «**Lur jota** nago zoritxarraren ondorioz.» |
| **garbikuzi** | «**Garbikuzia** gero goizean egingo dutela imajinatzen dut. Zer ba?» |
| **ezgauza hutsa** | «—Ederra harrapatu nuen, bai, **ezgauza hutsa**!» |
| **larrutan egin** | «—Buztana zenuen gauza dezente bakarra, eta orain **larrutan egiten** ere ahaztu zaizu!» |
| **nagiak atera** | «Esnatu berriak oheburuaren kontra ezarri zuen bizkarra eta **nagiak atera** zituen, orro eginez..» |
| **sakelako** | «...neska mulata baten argazkiaren ondoan zegoen **sakelakoari** erreparatu zion.» |
| **birao** | «**Birao bat** bota zuen eskua artean hartzean eta sukaldeko atea ireki zuen ostera ere.» |
| **igande** | «**Igandea** izan arren ia beteta etorri zen trena, eguna hirigunean ematera zihoazen beltzez gainezka.» |
| **sikeran** | «—Beitu alde onari. Zuk, **sikeran**, badaukazu nork zurrupatu dohainik!» |
| **motosdun** | «...Martirien kaleaz bestaldeko semaforoan zegoen **motosdun** arlotea.» |
| **zurrupatu** | «—Beitu alde onari. Zuk, sikeran, badaukazu nork **zurrupatu** dohainik!» |
| **arlote** | «...Martirien kaleaz bestaldeko semaforoan zegoen motosdun **arlotea**.» |
| **erauzi** | «Ez nuke buztana sartuko urdanga horren ahoan ezta zoratuta ere. Ziur haginkada batez **erauziko** lidakeela.» |

| Hiztegi azterketa — *Morto Vivace*. Jon Arretxe. Elkar. | Zuzen: |
|---|---|
| Izen-deiturak: ..................... Maila-taldea: .............. | |
| Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak. | Nota: |
| Azterketa honen balioa: ........ puntu. | |

| | |
|---|---|
| **popatik ematen du** | «—Hiri honek **popatik ematen du** –kexatu zen Perrot...» |
| **jilipolla** | «—Eta inoiz pentsatu duzu zer ostiagatik ematen dugun hainbeste denbora honelako terrazetan jesarrita, **gilipollaz** inguraturik?» |
| **desgogara** | «—Zure amak poltsan eramaten duen tresna? –bota zuen Perrotek, **desgogara**.» |
| **men egin** | «...entzun berri zuten gomendioari **men eginez**, minutu gutxiren buruan kalean zeuden.» |
| **artean** | «Biktimak, bestalde, alkandora gorri distiratsua erdizka loturik zeukan **artean**, baina gerritik behera biluzik zegoen.» |
| **burusi** | «**Burusia** altxatu eta berehala erreparatu zioten bigarren biktimak ipurtaldean zeukan odol putzuari.» |
| **biek ala biek** | «Nekatu aurpegia zeukaten **biek ala biek**, baina magrebtarrari gehiago nabarmentzen zitzaion begitartean.» |
| **begitarte** | «Nekatu aurpegia zeukaten biek ala biek, baina magrebtarrari gehiago nabarmentzen zitzaion **begitartean**.» |
| **larrutu** | «Ezin duzu imajinatu zelako gaitasuna daukaten batak bestea **larrutzeko**.» |
| **sandia** | «"Urliari sekulako pilota dio zuzendariak, eta beti rol onenak lortzen ditu", "**Sandia** beti ipintzen dute eszenatokiaren aurrealdean...» |
| **begitan eduki** | «...baina zuzendariaren kutunena zela iruditu zait eta, praktikan, denek **zutela begitan**.» |
| **urlia** | «"**Urliari** sekulako pilota dio zuzendariak, eta beti rol onenak lortzen ditu", "Sandia beti ipintzen dute eszenatokiaren aurrealdean...» |
| **sekulako pilota izan** | «"Urliari **sekulako pilota dio** zuzendariak, eta beti rol onenak lortzen ditu", "Sandia beti ipintzen dute eszenatokiaren aurrealdean...» |
| **hazi** | «—**Hazi** arrastorik agertu da?<br>—Ez, baina lubrifikatzailearena bai. Kondoia erabili omen zuten.» |
| **mamurtu** | «...mugitu barik polizia biak, laborategitik-eta jasotako azken informazioak **mamurtzen**.» |
| **emakume puska** | «—Enteratuta egoten den aspaldiko lagun bat, **emakume puska**, portugaldarra.» |
| **erabakitsu** | «Inspektore magrebtarra zutitu egin zen eta errepide ertzera jo zuen, **erabakitsu**.» |
| **tortolos hotsa** | «Atezainari tenkatu egin zitzaizkion lepoaldeko giharrak, eta **tortolos hotsa** atera zien bere atzamarrei.» |
| **abagune** | «Ezer eskatzeko **abagunerik** eman gabe, emakumeak barrapetik *absenta 85* zioen botila bat atera zuen...» |
| **belusezko** | «**Belusezko** txapel urdin argia zeukan buruan...» |